

2024an, hezkuntzako gastua % 6,4 hazi da Euskal AEn, eta 5.240 milioi eurokoa izan da

Biztanleko hezkuntza-gastua 2.373 eurokoa izan da, 2023an baino % 6,1 gehiago

Eustaten aurrerapen-datuen arabera, Euskal AEko hezkuntzako gastu osoa 5.240 milioi eurokoa izan da 2024an; hau da, 2023aren aldean % 6,4 igo da. Gastu osotik 5.004 milioi gastu arruntekoak izan dira eta 236 milioi kapital-eraketa gordinekoak.

Kopuru erlatiboetan, 2.373 eurokoa izan da gastua biztanleko, hau da, % 6,1eko hazkundera izan du; eta BPGaren portzentajea % 5,4koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko 0,1 puntu handiagoa.

Hezkuntzaren Kontuak jasotzen ditu hezkuntza-erakundeetan nahiz beste edozein ikastetxe edo enpresa motatan egin diren eta iturri publiko edo pribatuek finantzatu dituzten hezkuntza-jarduera arautu zein arautu gabeetan egindako gastu arrunta eta kapital-gastua.

Hezkuntzaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2021-2024

	2021	2022	2023	2024 (a)	Aldakuntza-tasa (%) 2023/2022	Aldakuntza-tasa (%) 2024 (a)/2023
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA (mila eurotan)	4.451.000	4.636.581	4.924.323	5.240.468	6,2	6,4
GASTU ARRUNTA GUZTIRA	4.265.015	4.437.903	4.699.198	5.003.826	5,9	6,5
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	185.985	198.678	225.125	236.642	13,3	5,1
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	2.033	2.116	2.236	2.373	5,7	6,1
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	5,7	5,4	5,3	5,4	-0,1	0,1

(a)Aurrerapena


Data 2025eko Maiatzaren 28a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua

Azken bi urteetako hazkunde-tasa % 6 inguruan mantendu da; zehazki, 2023an % 5,9ko igoera izan zen gastu arruntean eta % 13,3ko hazkunde nabarmena kapital-eraketa gordinean. 2024an hazkunderik handiena gastu arruntean izan zen, aurreko urtean baino % 6,5 handiagoa, 5.000 milioi eurotik gorakoa; bestalde, inbertsioa zertxobait gutxiago hazi zen, % 5,1, eta 236 milioi eurokoa izan zen.

Finantzaketaren egiturari dagokionez, aurreko urteetako joerari eutsi dio, eta finantzaketa publikoa pribatua baino gehiago hazi da. Finantzaketa publikoa 2019an % 76,0 izatetik 2024an % 78,4 izatera igaro da, eta azken 10 urteetako ehunekorik handiena da hori.

Hezkuntza-gastu osoa finantzaketa zuzenaren iturria. Euskal AEn Ehunekoa



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Finantzaketa publiko nagusia hezkuntza-zerbitzuetan (% 85,1) eta kapital-gastuan (% 63,9) mantentzen da, eta finantzaketa pribatua, berriz, handiagoa da gainerako jarduera eta ondasunetan (% 55,7), garraioa, eskola-jantokia, liburuak eta eskola-materiala barne.

Zuzeneko finantzaketa-iturriak Euskal AEn (%). 2024

	Publikoa	Pribatua
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	78,4	21,6
GASTU ARRUNTA	79,1	20,9
Hezkuntza-zerbitzuak	85,1	14,9
Gainerako jarduerak eta ondasunak	44,3	55,7
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	63,9	36,1

Data 2025eko Maiatzaren 28a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua

Gastuaren egitura xehatuari dagokionez, funtzioen arabeko azterketak adierazten du nahiko egonkor mantendu dela azken urteetan: gastu arrunta gastuaren % 95 baino gehiago da eta kapital-eraketa gordina, berriz, gastuaren % 4 baino zertxobait handiagoa.

Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak gastu osoaren % 81,4 izan dira azken bi urteetan, 4.000 milioi baino gehiago. Jarduera Osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza eta bestelakoak) gastuaren % 6,6 izan dira, eta partida garrantzitsuena jantokiko gastua izan da: 226 milioi 2024an. Bestalde, Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntzako gastua (174 milioi euro) % 3,3koa izan da. Ondoren, Liburuak, Eskolako materiala eta etxeek erositako beste ondasun batzuk partidako gastua dago. Partida hori 163 milioira iritsi da 2024an, gastu osoaren % 3,1. Azkenik, Hezkuntza Sistemaren Administrazio Orokorrekin lotutako gastua guztizkoaren % 1,0 izan da, hau da, 53 milioi 2024an.

Euskal AEko hezkuntzako guztizko gastua, funtzioen arabera. 2021-2024

	2021		2022		2023		2024 (a)	
	mila euro	%	mila euro	%	mila euro	%	mila euro	%
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	4.451.000	100,0	4.636.581	100,0	4.924.323	100,0	5.240.468	100,0
GASTU ARRUNTA	4.265.015	95,8	4.437.903	95,7	4.699.198	95,4	5.003.826	95,5
Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	3.620.679	81,3	3.769.711	81,3	4.008.397	81,4	4.267.032	81,4
Garraioa	45.210	1,0	49.672	1,1	54.460	1,1	56.893	1,1
Jantokia	202.222	4,5	199.850	4,3	206.463	4,2	226.065	4,3
Beste jarduera osagarri batzuk	44.985	1,0	61.352	1,3	62.819	1,3	63.697	1,2
Liburuak, Eskolako materiala eta etxeek erositako beste ondasun batzuk	155.113	3,5	155.216	3,3	159.016	3,2	163.257	3,1
Hezkuntza Sistemako Administrazio Orokorra	44.887	1,0	47.323	1,0	50.198	1,0	52.969	1,0
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	151.919	3,4	154.779	3,3	157.845	3,2	173.913	3,3
KAPITAL ERAKETA GORDINA	185.985	4,2	198.678	4,3	225.125	4,6	236.642	4,5

(a)Aurrerapena


Data 2025eko Maiatzaren 28a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAk argitaratu dituen azken datuak 2021ekoak dira. Urte horretan, Euskal AEn, Erosteke Ahalmenearen Parekotasunean (\$) neurtutako ikasle bakoitzeko gastuaren guztizkoa hezkuntza-erakundeetan 16.172koa izan zen, Lehen Hezkuntzatik Hirugarren Hezkuntzarako etapak batuta. Horrek EB-25eko batez bestekoaren (13.787), ELGAko batez bestekoaren (14.209) eta Espainia (12.426), Frantzia (14.803) eta Finlandia (14.723) bezalako herrialdeen batez bestekoaren gainetik jarri zuen; eta Alemania (17.161), Suedia (17.107) eta Luxenburgo (30.115) bezalako herrialdeen azpitik, taularen goiko muturrean.

Hezkuntza-etapen arabera, Euskal AEn ikasle bakoitzeko gastua 15.300 (\$) EAP izan zen Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzaren ondoko hezkuntza-mailetan, hau da, ELGAko (12.703) eta EB-25eko (12.395) batez bestekoa baino handiagoa; bestalde, Hirugarren Hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastua 19.257 (\$) EAP izan zen; kasu honetan, ELGAko (20.499) eta EB-25eko (20.027) batez bestekoa baino txikiagoa.

Ikasleko urteko gastua hezkuntza instituzioetan (\$) EAPn. 2021



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua eta ELGA. Education at a Glance. 2024

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62